



## **HAUTESKUNDEAK 2020**

### **HAUTESKUNDE BATZORDEA**

#### **15 zkduen AKTA**

### **BATZAR OROKORRERAKO DEIALDIA**

#### **ETORRIAK:**

Lorenzo González Sarmiento Jn. Hauteskunde Batzordeko presidente gisa  
Iñaki Irigoien Larrañaga Jn. Hauteskunde Batzordeko idazkari gisa  
Kepa Sanz Vicente Jn. Hauteskunde Batzordeko bokal gisa.

2020 ko Azaroaren 30ean eta arratsaldeko 6tan telematikoki elkartu ondoren, Hauteskunde Batzordeak ondorengo erabakiak hartu ditu aho batez:

#### **LEHENENGOA:**

14 zenbakidun aktan, COVID-19 a dela eta E.A.E. -n aplikatu diren 36/2020 eta 38/2020 dekretuak ezarri duten egoeraren ondorioz GFF-FGF ko presidente eta Direktiba Batzordea aukeratzeko bozketa egiteko Batzar Orokorra ospatzerik ez zegoenez eta, aipatutako dekretuak indarrean egotean eta hauek, jende kopuru, elkartzeko eta mobilitate murrizketak ezartzen zuten eta, aldi berean, GFF-FGF ko kide diren Nafarroako Foru Elkarteko bi taldeak ere bertako legediak jota zeudenez, Batzar Orokorraren ospaketa atzeratzea erabaki zen.

Hauteskunde Batzordeak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailera idatzia luzatu du non, Batzar Orokorrera joatea, mobilitate murrizpenaren salbuespena izango litzatekeen, eta, Batzar hau protokolo zehatz bat ezarri eta jende kopuru baimendua jasoko lukeen toki baten ospatzea posible izango litzatekeen galdetzen dugun.

Aldi berean, Batzar Orokorreko kide diren Nafarroako Foru Elkarteko talde biei ere galdera luzatu zaie.

#### **BIGARRENA:**

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko OSASUN PUBLIKOko DEPARTAMENTUTIK LUZATUTAKO TXOSTENA jaso dugu, non laburbilduta hau esaten den:

- Batzar Orokorraren ospaketa, mobilitate murrizpenaren salbuespen gisa hartuko da. Horrela, GFF-FGF k, murrizpenak jarraituko balute, akreditazioak luzatzeko baimena izango du.
- Bidali diegun segurtasun protokoloa onartzen dute, nahiz eta aholkuren bat gehituz.

Nafarroako Foru Elkarteko taldeen erantzuna jaso dugu, non bozketa eskubidea beteko dutela esaten diguten.

## **HIRUGARRENA:**

**Aurreko guztia kontutan izanda, HAUTESKUNDE BATZAR HONEK, AGINDUA EMATEN DIO GFF-FGF KO IDAZKARITZARI, NON ORGANO ZUZENAK, GFF-FGF KO PRESIDENTE ETA DIREKTIBA BATZORDEA AUKERATZEKO BATZAR OROKORRA ABENDUAREN 14 AN (ASTELEHENA) ARRATSALDEKO 7 TAN OSPATU DADIN AGINDU DEZAN ESKATZEN ZAION.**

## **BATZARREKO GAIAK:**

**GFF-FGF ko PRESIDENTE ETA DIREKTIBA BATZORDEA AUKERATZEKO BOZKETA.**

## **LAUGARRENA:**

Epe laburrean, Hauteskunde Batzorde honek akta batzuk argitaratuko ditu, non, E.J. ko Osasun Saileko OSASUN PUBLIKO ko TXOSTENAK ezarritako erabakien arabera, bozketa protokoloa, identifikazioa, akreditazioak eta abar eta baita derrigorrez jarraitu beharko den segurtasun protokoloa argituko diren.

## **BOSTGARRENA:**

Osasun Publikoko Txostenak esaten duen bezala, orain indarrean ditugun neurri bereziak, pandemiaren garapenaren menpe daude eta Batzarraren ospakizunaren egunean aldatu egin daitezke eta beraz, ospakizunaren garapena aldatu.

Donostia, 2020ko Azaroaren 30

## **HAUTESKUNDE BATZORDEA**

Izpta: Iñaki Irigoien

Izpta: Lorenzo González

Izpta: Kepa Sanz

